



ZIGOR ARLOKO JURISDIKZIOARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak Zigor arloko Jurisdikzioari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat bereziki zuzenduta.

Baldintzak:

1. Ikastaroan **lehentasuna izango dute** Justiziako Administrazioiko Kudeaketa, Izapideketa Judizialeko kidegoetako lan-poltsetan daudenek; zehazki, justizia administrazioan zigor arloan, azken bi urteetan 6 hilabeteko lan esperientziarik ez dutenek.
2. Automatrikula, hurrengo estekaren bitartez egingo da:
 - Euskeraz: <http://justizia.encuesta.euskadi.net/index.php/318972/lang-eu>
 - Gazteleraz: <http://justizia.encuesta.euskadi.net/index.php/318972/lang-es>

Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

3. Automatrikulatzeko epea argitaratzen denetik, azaroaren 9ko goizeko 08:00arte izango da.
4. Azaroaren 12an, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastarorako onartu direnei. Erabiltzailea, pasahitza eta ikastaroan nola sartu adieraziko zaie posta horretan.
5. 300 plaza eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsetako hurrenkerak izango du lehentasuna.
6. Ikastaroa azaroaren 12an hasiko da, 16:00etan, eta abenduaren 10ean amaituko da, 08:00etan. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, moduluak behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroak dituen modulu guztiak ikusi beharko ditu pantailan, eta ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**
9. Ikastaroa amaituta, **abenduaren 13tik (16:00etan) 20ra (goizeko 8:00etan) bitartean**, ikastaroaren **azterketa (online)** egiteko epea irekiko da. Ikastaroa gaindituta, Jurisdikzio honetan ordezkapenak egiteko deitu ahal izango zaie lan-poltsetan daudenei.